4.2. 1 NOLEGA deialdietako **ANTOBA ebazpen eta jarraipen batzordean** parte hartu. Beteta.

4.2. 2 Euskal Giroitze Barnetegien artean, **AUBIXA barnetegiaren jarraipen eta ebaluazio** saioetan parte hartu. Beharren arabera aholkularitza eta informazioa eman. Beteta.

Horrez gain, formazio saio bat ere egin dut NOLEGako kide batekin elkarlanean barnetegiak irakasleen prestakuntza bideratuz. Gaia: curriculum berria, hiztunen portaeraren zergatiak eta eragileak. *Balorazioa oso ona izan zen.*

4.2. 3 **JABA (Ulibarri Jarraipen eta ebazpen Batzordea)** n parte hartu. Beteta.

4.2. 4 HONTZA (Ulibarri Programa eta Kalitatea) lan taldean parte hartu. Beteta.

4.2. 5 "Identitatea eta kultura" lan taldean parte hartu. Beteta.

4.3. 1 koordinazio, formazio, ... saioetan parte hartu (Departamentuak, Delegazioak, Berritzeguneek, entitate pribatuek... antolatutako batzuetan) beharren edo aginduen arabera. Beteta.

3.- Metodologia

Iritzi trukean, esperientzi trukean, baliabideak eta formazioa konpartitzen oinarritu da lana:

4.- Ebaluazioa

Hausnarketa etengabea izan da.

Eibarko Berritzegunea

- **kuantitatiboa:**
 - programatutako saioak egin diren. Ondo bete da.
 - Izandako eskaerei erantzun zaien. Ikastetxeak gustura geratu dira; balorazio ona egin dute.

- **Kualitatiboa:**
 - Balorazio pertsonala: *asebetetze maila handia*.
 - Ikastetxeetako HNATEk eginiko balorazioa galdetegiaren bitartez jaso da eta *oso ontzat* jo da.
 - Ikastetxean bertan lana egin dudan ikastetxeetako hartzaileekin, zuzendari edo Normalkuntza Batzordeko kideen balorazioa: galdeketa eginez. *Oso ondo* baloratu da eginikoa.
 - Ulibarri Programa osoaren balorazioa egiteko ikastetxeetara bidalitako GALDEKIZUNA. *Ondo* baloratzen da egiten den lana.
 - Herri mailako Euskara Teknikari edo Biziberritze Plan arduradunekin balorazioa eginez. Eibarko ikastetxe batzurekin egin diren formazio saioetako balorazioak *oso onak* izan dira.
 - Prestakuntza Proiektuetan ebaluazio atalean eskatzen den atala betearaziz. Ikastetxeek *ondo* baloratu dute nire lanari zegokiona.

EIBARKO BERRITZEGUNEA
OROITZA 2007-2008

1. Sarrera

2007-2008 ikasturtean Eibarko Berritzegunean aritu naiz lanean honako ordutegiarekin.

	Astehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9/12		Berritzegunea	Berritzegunea		
14/16:30	Berritzegunea				

2. Helburuak

- Eskualdeko HIPI-en koordinaketa aurrera eramatea.
- Materiala sortzea eta HIPIen eskura ipintzea.

3. Egindako lanak

HIPI-en bilerak

- HIPI berriekin bilerak
 - HIPIen oinarritzko materialen aurkezpena eta Norbanako Plana.
 - Material eta hainbat baliabideen aurkezpena: gela antolatzeko irizpideak, hizkuntza trataera, webgune interesgarriak.
- HIPIen bilera orokorra
 - Material eta hainbat baliabideen aurkezpena.Berritzegunearen eskeintza eta eskuhartzea, mintegiak osatzeko aukera aztertu, HIPIen kezka, ikastaroen informazioa.

Eskoletako eskaerak edo eskuhartzeak

Ikasle etorriberriekin nola jokatu, hasierako materiala, Harrera Plana eta HIP diseinua.

- Elgoibar LH
- Mendaro LH
- Arrasate LH
- Mendata BHI
- Luzaro LH

Besteak

Elkarrekin.org HIPI-Eibar lan taldea sortu dugu.
www.eibarkohipiak.blogspot.com bloga ere sortu dugu.

4. Balorazioa

Ikasturtea Proiektu jakin bat esku artean izan gabe hasi zen. Hasiera batean HIPIen koordinaketa izan behar zena eskuhartzea puntualak bilakatu dira.

Esan beharra dago DBHko HIPIekin koordinaketa azkenean ez zela gauzatu eta datorren urtera begira hobetu beharreko atal bat izan daiteke. Gainera hainbat ikastetxe horren beharra aipatu zuten.

Eskoletan egin ditugun eskuhartzeak balorazio positiboa izan dute eta nahiko gustura gaude egindako lanarekin.

Eibarko Berritzegunea

Berritzegunean emandako orduetan Internet oinarri hartuta Elkarrekin.org-en lan taldea sortu genuen eta ikasturte amaieran www.eibarkohioiak.blogspot.com bloga sortu genuen baita ere. Datorren urtera begira komenigarria izango litzateke hainbat eskolek egindako proposameneei erantzuna ematea (Mendata BHI) eta mintegia sortzea.

2007 – 2008 Ikasturteko Memoria



IKT Programa

Koldo Etxebarria Arabaolatza

1.- Sarrera

Aurten IKT Ikastetxe Ereduak eragin zuzena izan du programan, batetik ekimen berria zelako eta bestetik zenbait ikastetxeetan sortu duen aurreikuspenak direla eta. Ezin dut balorazio positiborik egin proiektu honetaz, nire ustez lehen urte hau hutsunez beteta izan da, froga urtea akaso? Denbora gehiegi eman dugu zer egin jakin gabe eta parte hartzen zuten ikastetxeengan eragina izan du noraezean ibili izanak.

Jarraitu du iaz hasitako joera: web 2.0ko tresnen erabilera gero eta handiagoa da gure eremuko ikastetxeen aldetik, ikasleekin sortutako Blogak gero eta gehiago dira, eta hauek bezala irakasleek ere tresna hauetaz baliatu dira beraien produkzioak argitaratzeko (aurkezpenak, bideoak, podcast-ak, etab...). Barruko lanari buruz, beste esparru batzuetako aholkulariekin lan egin jarraitu dut gehien bat etapako aholkulariekin.

Lehen hezkuntzako mintegiak ez du izan bilakaera positiborik, gero eta jende gutxiago etorri da mintegira (zuzendaritza taldeetako kide asko izan dira) eta iaz aurreikusitako bilakaera (geletara eramatea IKTen erabilera) ez dugu bete. Kontutan harturik hurrengo ikasturterako 15 ikastetxe izango direla IKT Ikastetxe Eredua proiektuaren barruan, Lehen Hezkuntzako Mintegia bertan behera uztea erabaki dut, aholkularitza ikastetxeen eskaeretara egokituko da eta lehenetsiko dira IKTak geletan erabiltzeko aurkezten diren proiektuak.

Ondorengo lerroetan aurten eginiko lanen laburpen bat dago:

2.- Burututako jarduerak

2.1.- IKT Mintegia.

Berriz ere bi mintegi ezberdin antolatu ziren eta bien berri eman zitzaien gure eremuko ikastetxeei, bata Lehen Hezkuntzako IKT arduradunentzat eta bestea Bigarren Hezkuntzako arduradunentzat. Bien helburua berdina zen ere: Teknologia Berrien erabilera sustatzea arlo eta hezkuntza eremu guztietan. Aurten ere Prestakuntza eta Berrikuntza proiektuei lotutako IKTekin zerikusi zuten B modalitateko ikastaro batzuk izan dira eta hauen garapenaren ardura nirea izan da.

Orain arte ez bezala, Bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako mintegia osatu da, guztira zazpi pertsona eman zuten izena parte hartzeko, bileretara lau pertsona baino gehiago ez badira etorri maiztasunez beste batek ere harremana mantendu du taldearekin eta bertan garatzen ziren materialekin.

Bigarren Hezkuntzako mintegian garatutako gaien artean, honako hauek izan dira:

1. Google-n zerbitzuen azterketa:
 - a. Gmail

Eibarko Berritzegunea

- b. Google Docs.
 - c. Google Groups.
 - d. Google Calendar.
 - e. Picasa
 - f. Blogger
 - g. Google Earth eta Google Maps
2. IKT Ikastetxe Ereduaren zenbait berri ere eman dira.
 3. Aldiro sortu diren beharren arabera ikastetxeetan izandako arazoak konpontzen saiatu gara.

Lehen hezkuntzako ikastetxetako Premia arduradunekin osatutako Mintegian hamabostean behin bildu izan gara. Mintegi honen helburua bikoitza izanik (batetik behar teknikoak asetzea eta bestetik baliabide pedagogiko erabilera sustatzea) gero eta gutxiago da arazo teknikoek emandako denbora eta aurten ere lan gehiena egin dugu eremu didaktikoan. Hona hemen kurtso honetan landutako gaien zerrenda:

Lehenengoko hiruilabetean: Iaz hartutako erabakiak gogora ekarri genituen, hala nola:

1. Hiru talde ezberdinetan antolatu erabilera praktikoan oinarritutako ejemplifikazioak sortzeko:
 - a. Blog.
 - b. Irudi digitala.
 - c. Audio digitala.

Bigarren hiruilabetean :

1. Hiru talde hauetako materiala bilketa, antolaketa eta lanaren gauzatzea osatzeko denbora zen. Momentu honetan hasi zen arazorik handiena nabarmentzen, partaideen artean kontinuidade eza, hau da, saio batetik bestera ez zen jende berdina etortzen eta oso zaila zen taldeen egitura eta lanen banaketa mantentzea.

Hirugarren hiruilabetean:

1. Hiruilabete honetan, egindako lanaren emaitzak argitaratzen eta dokumentatzen hasi behar ginenean are nabariago egin zen antolakuntzaren arazoa, zenbait saioetan hiru lagun baino ez ziren etorri.

Beti bezala, mintegi honen helmuga ikas geletan jarria dago, hau da bertan lantzen duguna ikasleengana heltzea eta ikasgeletan garatzen diren jardunetan txertatzea du helburu mintegiak. Besteetan bezala nire ustez atal honetan ez dugu asmatzen ez baita ikusten inondik inora hori gertatzen denik gure eskoletan (ekimen batzuk kenduta). Hori dela eta, arestian esan bezala, hurrengo ikasturterako proposamen berriak garatzeko asmoa dut, ez da mintegirik izango, aldiro eta beharren arabera osoko bilera bat deitu dezaket arazo puntualei irteera emateko bainan nire jarduna Lehen Hezkuntzako ikastetxeekiko ikastetxean bertan izango da eta beti ere geletan erabilera proposatzen duten proiektuak lehenetsiz.

2.2.- WebQuest Mintegia.

Eibarko Berritzegunea

Aurten, bigarren urtez, Bigarren Hezkuntzako Arlo Zientifiko Teknologikoko aholkulari den Lydia Fernandez de Lucorekin zabaldu genuen mintegi hau, bere helburua hainbat irakasle formatzea zen Webquestak sortu ahal izateko.

Horretarako Mintegi honen hasieran hainbat formakuntza saio egin ziren eta gero mintegikideen artean sortutako taldeek bakoitzaren Webquestaren diseinuaren ardura hartu zuten.

Hemen hasten zen nire papera mintegi honetan aholkulari teknikoaren papera hartu nuen eta web orriak diseinatzerakoan sor zitezkeen arazoei aurre egiteko arauak edota pautak eskaintzen nizkien.

Mintegiak aurrera egiteko arazo handi batekin egin genuen topo, Lydiak baja hartu zuen eta bera izanik mintegi honen burua bilera keta formazio saioak pixkanaka utzi egin ziren eta ondorioz irakasle bakar batek osatu zuen bere Webquest-a.

2.3.- IKT Ikastetxe Eredua.

Hezkuntza Sailak bultzatutako proiektu honetan gure eremuko zortzi ikastetxek hartu zuten parte (2 Lehen Hezkuntzakoak eta gainontzeko guztiak Bigarren Hezkuntzakoak).

Proiektu honen gidaritza ESI enpresaren eskuetan dago eta enpresa honek antolatutako aurkezpen bilera bat izan zen ikasturte hasieran. Hasieratik esan behar da ez zigutela informazio osoa eskaini, beti ibili gara informazio hori eskatzen eta ezin da esan beti ere jaso dugunik oraindik ere ez dakigu nola jarraitzen duen proiektu honek hurrengo ikasturteari begira.

Behar izan denean bilerak egin izan ditut ikastetxe horien dinamizatzaileekin eta bilera hauetan ere islatu da informazio falta hori, dena den aipatu behar da dinamizatzaileen aldetik oso gono onez hartu dela proiektu hau eta hurrengo ikasturteari begira baikor ikusten dela ikastetxeetan izango duen eragina.

2.4.- Goieskola Web orrien Mintegia

Aurten bigarren aldiz dedikazio osoz, mintegi honen partaidea izan naiz. Goieskolak Deba Goienan dauden ikastetxe publikoak elkartzen duen erakunde bat da.

Erakunde honen bitartez eta jasotako dirulaguntzei esker urte batzuk direla bertako ikastetxe guztientzako Web orriak diseinatu eta egin zituzten Plazagunea enpresaren laguntzarekin.

Ikastetxe askorentzat tresna berria izanik web orria eguneratua eta bizirik mantentzea nahiko lana izan da. Azken urte bi hauetan gogoz hartu eta erabilera sustatzeko pausuak ematen hasi dira. Hemen da nire lana: izan ditzaketen arazoei aurre egiteko aholkuak eman, proposamen berrien bideragarritasuna aztertu, eta enpresarekin dituzten arazoen nondik norakoa aztertu eskaerak modu egokian egin ahal izateko.

Eibarko Berritzegunea

Zenbait momentutan mintegian egiten diren saioretaz aparte hainbat ikastetxeetara ere joan behar izan naiz arazoak konpontzera.

2.5.- Berritzegunearen eremuan garatutako lana.

Hauek izan dira eskatutako moduloak: Eibarko HHIn eta San Andres LHIn B Modalitateko moduloa eman dut, guztietan irakaslegoaren partaidetza handiaz eta oso balorazio onarekin. Modulo hauetan Arbel digitalaren erabilera landu da ikastetxe bietan, ezberdintasun bakarra bertara eskainitako denbora izan da Eibarko kasuan saio kopuru handia izanik bukaeran irakasleek eginiko adibideak ere garatu iza dira.

2.6.- Erreferente lana.

Aurten ere hiru ikastetxetan izan dut ardura hori:

- ✓ Oñatiko Zuazola Larraña Institutua.
- ✓ Eibarko Ignacio Zuloaga Institutua.
- ✓ Mutrikuko GoizekoIzarra Ikastola.

Hiruretan egoera zeharo ezberdinak bizi izan ditut: Lehenengoan nere partaidetza zuzena izan da heuren proiektuak definitzerakoan eta egiterakoan lotura zuzena izan dutelako nere programarekin.

Oñatiko eta Mutrikuko kasuetan ikastetxe biak IKT Ikastetxe Ereduko proiektuko partaideak izanik harremana zuzenagoa izan da kasu bietan eta urtean zehar aukera gehiago izan dut harremanak izateko.

Eibarko Institutuan, aurten garatutako formakuntza saiok IKTekin zerikusia izanik ere kanpoko enpresa batzuekin garatu dituzte (Institutuan bertan erabiltzen duten programa bati buruz, eta bestea Aldizkari bat kaleratzeko erabiltzen den programari buruzkoa), horregatik ez dut iaz bezalako harremanik izan, dena den proiektuak garatzerakoan eta justifikatzerakoan parte hartu dut.

Bada zer hobetu alde honetatik ere, baina programa bati lotuta egoteak ere (erreferentzia bakarra izanik bailara honetan) denbora asko eramaten du eta honek ez du laguntzen asko ikastetxe horiekin izan nahi ditugun harremanak sendotzen.

3.- Izandako arazoak.

Batetik aipatu behar da lana toki ezberdinetatik heltzen dela, hau da, beste programa eta aholkulariek ere laguntza eskatzen didatela beraien mintegi edota prestakuntza saioretan parte hartzeko. Eskaera hauek eragina dute lana antolatzerakoan, baina positiboki baloratzen ditut IKTen ikuspegi didaktikoari buruzko hainbat ideia zabaltzeko aukera eskaintzen didatelako.

Bestetik gustura sentitu naiz ikastetxeetan eginiko lanarekin, badirudi iaz hasitako bideak izan duela jarraipena. IKTak kurrikulumean txertatzeko

Eibarko Berritzegunea

dauden baliabide batzuk ezagutzeko aukera izan dute eta orain kurrikulumean txertatzeko eman behar diren pausuak emateko garaia heldu dela. Ez dira ikastetxe guztiak, Lehen Hezkuntzakoak izan dira gehien parte hartu dutenak, baina hurrengo ikasturterako baikor agertzen naiz, aukera berriak ireki daitezkeelako (Ikastetxe IKT eredu).

Beti bezala aipatu behar da ere Premia arduradunek duten zailtasunak ordutegi duin bat izateko ikastetxeetan. Kurtso hasierako orientabideetan agertzen diren lau orduko dedikazioa askotan ez da horrela betetzen ikastetxe horiek beste lehentasun batzuk dituztelako, eta zenbaitetan nahiz eta ordu horiek izan ez dira nahikoa izaten aurrera eraman behar diren lanei era egokian erantzuteko.

Berritzegune barruko antolakuntza, barneko formakuntza saioak antolatu direnean, ere oztopo handia izan da zenbait momentutan. Antolatutako formakuntza saioak barneko koordinaziorako erabiltzen diren egunetan egin izan dira, egoera honek lagundu beharrean eragozpenak baino ez du sortu, oker ez banago ez gara elkarrekin talde osoa egon egun bakar batean ere ez, ondorioz, beti ibili izan naiz beste zenbait momentutan formakuntza saio horietan egon ez den jendea formatzen. Badakit zenbait momentutan denok egin dugula halako gauzarik, lanak hala agintzen duelako zenbait momentutan, baina eskertzekoa izango zen beharrezkoak diren gaietan jende guztiaren partaidetza eta inplikazioa, batez ere Web orriaren mantentze lanei edota gure Intranetaren erabilerari buruz denean.

4.- Hobetzeko proposamenak.

Hobetzeko proposamenen artean Bigarren Hezkuntzako mintegiarekin jarraitzea dago, hurrengo ikasturtean adibide gisa honako gaiak landu ditzakegu: Arbel digitalak (gero eta gehiago dira halako baliabideak dituzten ikastetxeak gure eremuan), Premia sareen antolakuntza, Material didaktikoa sortzeko tresna errazen azalpena, Ikastetxeetako web gunea eta intraneta, etab... .

Beste proposamen bat lehen aipatutako erabilera didaktikoaren haritik joan beharko litzateke, hurrengo ikasturteko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan honela gauzatu beharko zen parte hartzea: IKTak kurrikulumean txertatzeko oinarritzko proiektu bat osatu (azken urte hauetan landutako gaiak kontutan harturik), irakasle talde osoarekin nahiz ziklo edota maila jakin batekoekin, eta hura garatzen lagundu.

IKT Ikastetxe Ereduarekin jarraitu ikasturte honetako zortzi ikastetxeekin gehi hurrengo ikasturterako izena eman duten beste zazpiekin. Horretarako bi mintegi osatuko dira (jarraipena eta berriak), lehenengoaren helburua Hobekuntza Planaren Proiektua osatzea eta garatzea izango da eta Bigarrenarena berriz hasierako diagnostikoa osatu eta gero Hobekuntza Plana egitea.

Azkenik eta barruko lanari buruz, ez dut uste bakarrik nire eskuetan dagoenik, baina, ahaleginak egin barne formakuntzari buruz egiten diren saioak bere helburua lortzeko. Berritzeguneko web guneari buruz eman behar den formakuntza eta laguntza eskaintzea, eta bere funtzionamendu egokiaz arduratzea.

2007 – 2008 Ikasturteko Memoria

*Bigarren Hezkuntzako etapa
aholkularia, zientifiko-teknologiko
eremua*

Lydia Fdez de Luco Ochoa de Amezaga

1.- Sarrera

Memoria hau egiteko, 2007-2008 Ikasturteko Plana dokumentuan jasotzen ziren nahiak eta betekizunak kontuan hartuko ditut. Memoria honek, aurreko ikasturtean bezala, datorren kurtsorako hobekuntza arlo batzuk planteatuko ditu; horiek izango dira 2008-2009 ikasturterako Lan Plana egiterakoan nire ahaleginak bilaraziko dituztenak helburuak erdiesteko.

1.1.- Lorpenak:

Ikasturte honetarako 6 helburu aurreikusten nituen eta denak garatu ditut sakontasun desberdinekin. Lan planean adierazita zegoen nola gauzatu eta banan banan aztertuko dut:

- a) Barne eta kanpoko koordinaketa eta antolaketa hobetzea: Jarritako bileretan parte hartu dut eta nik proposatuta beste batzuk ere egin ditugu gure koordinazioa bultzatzeko eta sendotzeko.
- b) Nire formazioa indartzea: Ikasturtean formazio saioetan parte hartu dut. Esate baterako curriculum berriak eta konpetentziak, ebaluazio-diagnostikoa, elkarbizitza, ikaste-kooperatiboa, Inteligentzia Emozionala 3.maila, Webquest jardunaldi pedagogikoak, Gipuzkoako jardunaldiak, Goieskola jardunaldiak ...
- c) Erreferente garen ikastetxeekin harremanak estutzea: Aurten egindako lanarekin pozik nago, gure harreman-maila oso ona izan da eta maiztasun-erlazioa ere indartu da orokorrean. Esate baterako, ikastetxeetan bilerak egiten, beste batzutan Berritzegunean eta eskaerak eta galderak bai e-mailez, bai telefonoz sarritan jasotzen. Azken 6 urtetan elkarrekin egindako bidearen fruituak jasotzen ari naiz. Prestakuntza eta Berrikuntza proiektuen definizioan eta garapenean oro har nire ekarpena baloratzen da.
- d) Irakatsi eta ikasteko prozesuetan parte-hartzea sustatzea: Aurten 5 mintegietan lan egin dut: Matematika, Webquest, Elkarbizitza, Orientatzaileak eta Geogebra. Horrez gain, otsailean, Mikrobiologiari buruzko ikastaroa egin genuen eta gure eskualdean nire esparruko berrikuntza-ekintzak interesgarriak martxan jarri dira: OLE, Zientzia lankidetzan Proiektu Telekolaboratiboa, Berrikuntza proiektuak...
- e) Zuzentasunean, barne-hartzean eta elkarbizitza demokratikoan oinarritzen diren hezkuntza eta curriculum proiektuak sustatzea: Goiko lerroan esan dudan moduan Elkarbizitza mintegian kolaboratu dut, hain zuzen ere, lan saioetako helburuak, edukiak, metodologia eta garapena definitzen eta parte hartzen lan saioetan ere. Guztira 9 ikastetxek Urteko Elkarbizitza Proiektua ekoiztu eta Elkarbizitza Behatokia sortu dute. Halaber, A moduluko formakuntza Soraluze BHI ikastetxerako prestatu dut Roberto Salazarrekin batera.
- f) Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumaz zabaltzea: irailean gure eskualdean zuzendariarekin eta BHko giza hizkuntzako aholkulariarekin bi saio eman genituen, gero ikasturtean zehar ikastetxeen klaustroen aurrean edota zuzendaritza taldeekin beste saio batzuk egin ditut. Horrez gain, nire mintegietako

Eibarko Berritzegunea

lanetan konpetentzia eta curriculum berriaren ikuspegi pedagogikoak kontuan hartu ditut.

1.2.- Zailtasunak:

Aurten, nire lanean zailtasunik handiena nire osasun arazoak izan da, urtarrilean eta otsailean bajaran egon nintzen, eta hori dela eta, nire helmugaren igurikimen guztiak ez dira bete nik nahi nuen bezala. Adibidez, Soraluzen emandako A modalitateko Elkarbizitza moduluan bakarrik prestakuntzan (abenduan Roberto Salazarrek eta biok egin genuen) parte hartu nuen eta ez dut izan aukera emateko (otsailean) aurreikusita zegoen moduan. Formazio honen helburuen artean 08-09 ikasturtean Elkarbizitza Proiektua eskatzea zegoen. Horregatik, martxotik aurrera bilera batzuk egin ditut zuzendaritza taldearekin eta izango den proiektuaren dinamizatzailearekin proiektuaren ezaugarriak azaltzeko eta maiatzean deialdia betetzeko.

Bestalde, jasotako formazioa saioetan, bereziki, konpetentziei eta curriculum berriari buruzkoenak ia ejenplifikazioak ez dira aurkeztu eta, nire ustez, beharrezkoak dira ikastetxeetara joaten garenean. Are gehiago, 07-08 ikasturtearen xedea teoriatik praktiketara abiatzea zen eta jasotako laguntza eskasarekin zailtasunez hasi gara egiten.

Horrez gain, aipatu nahi nuke ia beti gure lan plangintzarekin dauzkagun arazoak. Gure lana ondo betetzeko antolaketa beharrezkoa da eta horren arabera gure agenda betetzen dugu. Tamalez, sarritan eta aurre-abisu gabe Hezkuntzatik deitzen digute lan saio, formazio, bilera, kongresuetara joateko. Nire ustez, komenigarria izango litzatekeela aurrez, hau da, irailean (eta hobeto uztailean izango balitz) egutegi bat guri pasatu gure lan plangintza egiterakoan aurreikusteko.

Aipatu nahi dut, berritzegunetik antolatzen diren jarduerak (hitzaldi, tailerrak, mintegi, ikastaro, baliabideen aurkezpenak,...) askotarikoak diren arren eta hauek antolatzea suposatzen duen guztia ahaztu gabe, irakasleengan irrika sortzea ez dela erraza izaten, agian formazio saio hauek gehienetan ordutegitik kanpo egiten direlako.

Aurten Berritzeguneko web orrian etapako presentzia gutxi zaindu dut. Hala ere, Hezkuntza blog bat (<http://zirtedozart2.blogspot.com/>) ireki dut eta sarritan berriak han eta elkarrekin.org webaren zientifiko-teknologiko esparruko taldeetan eskegitzen ditut.

1.3.- Hobetzeko proposamenak:

Berritzeguneko Web orrian gure eremuaren presentzia zaintzea nahi nuke, hala nola, berriak zintzilikatuz, ikastaroetan banatutako dokumentazioa jarriz, baliabide didaktikoak eskura jarriz, beste helbide interesgarrietarako loturak ipiniz, gure eskualdeko irakasleen lanak zabalduz. Hori guztia gure eskualdeko ikastetxeetako irakasleen lanen trukaketa egitea helburu izanik. Horrez gain, elkarrekin.org webaren zientifiko-teknologiko esparruko taldeak eta nire bloga ere indartu nahi nituzke.

Ahal den neurrian (gure aurrekontua mugatuta dago eta), mintegi, ikastaro, modulu edota hitzaldietan jasotako proposamenei erantzuna emango diet.

Ebaluazio diagnostikaren frogak kontuan izan tailerrak eta moduluak antolatu eta eman.

Zientzia proiektuak bultzatu.

Eibarko Berritzegunea

Oinarrizko konpetentziak landu, bereziki konpetentzia digitala, zientifikoa eta matematikoa.

IKTaren alderdi didaktikoak zabaltzeko eta landu IKTko aholkulariarekin laguntzaz (Koldo Etxebarria). Adibidez: Webquest, blogak, wikiak, aurkezpen tresnak,...

2.- Ikasturteko helburuak

2.1.- Erreferente lana

2.1.1.- Lorpenak:

Nire ikastetxe guztiekin, hau da, Arrasate BHI, Aranzadi ikastola, Ipintza BHI, Kurtzebarri BHI, Mogel-Isasi BHI, eta Soraluze BHI ikastetxeekin esku hartzea egin da, lehenengo hiruhilabeteko bileretan ikastetxeko lan plana diseinatuz. Lan plan horietan ikasturte honetan bere proiektuak aurrera eramateko jarduerak, egutegiak, berritzeguneko aholkularitzaren lanak eta abar finkatu ziren.

Maiatzean, ekainean eta uztailan, 07-08 ikasturteko proiektuen balorazioa egin orduan datorren ikasturterako prestakuntza eta berrikuntza proiektuak aztertu ditugu. Aurten Berrikuntza proiektua (12 proposamenak) maiatzera aurreratu da eta.

2.1.2.- Zailtasunak:

Gero eta eskaera gehiago dagoenez, batzuetan bizkor erantzutea nekez lortzen dut, lan bolumena handitzen dagoelako.

2.1.3.- Hobetzeko proposamenak:

Ikastetxeetatik jaso ditudan eskaerei ahalik eta azkarren erantzuna eman.

Sailak eskatzen dituen balorazio anitzak epean bukatu.

2.2.- Eremuko lana

Memoria honetako sarreran aipatu ditut nire lanaren lorpenak, zailtasunak eta hobetzeko proposamenak.

3.- Jardueren proposamena

Atal honetan, mintegi, ikastaro eta gai desberdinei buruzko aholkularitzaz memoria kuantitatiboa egingo dut.

3.1.- Mintegiak:

Izena	Ildoa	Burutu diren saioak	Ikastetxeak	Partaideak	Material Ekoizpena
Matematika (Lydia Fdez de Luco)	310	14	Arrasate BHI, Ipintza BHI , Kurtzebarri BHI	6	www.elkarrekin.org webgunean dago
Orientatzaileak (Lydia Fdez de Luco)	410	7	Itzio BHI, Soraluze BHI, Kurtzebarri BHI, Mogel-Isasi BHI, Arrasate BHI, Armeria Eskola, I. Zuloaga BHI, Elgoibar BHI, Mendata BHI, Arizmendi BHI, Elkar-Hezi, Zuazola-Larraña BHI	13	Otsaileko saioan Begoña Berroeta egon zen. Batxilergorako bi blog ekoizten ari dira.
Webquest (Koldo Etxebarria eta Lydia Fdez de Luco)	320	10	Txantxiku Ikastola, Amaña LHI, Arrasate BHI, Mogel.Isasi BHI	6	Ekoiztutako lanak: www.eibarpat.net/etapa edo http://zirtedozart2.blogspot.com/
Geogebra Manuel Sada eta Lydia Fdez de Luco)	407	6	Mogel- Isasi BHI, Arrasate BHI, Kurtzebarri BHI, Arizmendi Ikastola eta Oianguren BHI	15	Mintegiaren gela birtuala honako helbide honetan dago http://axular.org/hezitop/course/view.php?id=27
Elkarbizitza (Roberto Salazar eta Lydia Fdez de Luco)	221	11	Arrasate BHI, Elgoibar BHI, I. Zuloaga BHI, Mutriku BHI, Kurtzebarri BHI, San Andres LHI, Mendaro LHI, Plaentxi LHI, Urkizu LHI	10	www.elkarrekin.org webgunean dago

3.2.- Ikastaroak:

Izena (emailea)	Ildoa	Orduak	Ikastetxeak	Partaideak	Oharrak
Mikrobiologia (Vita-Aidelos)	409	10	Elgoibar BHI, Arrasate BHI, Aranzadi Ikastola, Arizmendi ikastola, Urretxu Zumarraga Ikastola eta Mutriku BHI	11	

Eibarko Berritzegunea

3.3.- Gai desberdinei buruzko aholkularitza:

Izena (emailea)	Ildoa	Burutu diren saioak	Ikastetxeak (2 edo 3 orduko saio kopurua)	Oharra
A modalidadeko modulua: Bizikidetzeta (Roberto Salazar eta Lydia Fdez de Luco)	221	5	Soraluze BHI	Nik bakarrik lan saioen prestakuntzan parte hartu dut. 08-09 ikasturtean Elkarbizitza berrikuntza proiektua egingo du.
Konpetentziak eta DBHko curriculum berria (Benjamin Atutxa, Roberto Orbea Lydia Fdez de Luco)	310	1	BHko Debabarreneko ikastetxeak	www.eibarpat.net/etapa
Konpetentziak eta DBHko curriculum berria (Benjamin Atutxa, Roberto Orbea Lydia Fdez de Luco)	310	1	BHko Debagoineko ikastetxeak	www.eibarpat.net/etapa
Matematika curriculum (Santiago Fernández)	310	1	Almen, Elkar-Hezi, Elgoibar BHI, Kurtzebarri BHI, Zuazola-Larraña BHI, Elgoibar Ikastola, Arrasate BHI, Ipintza BHI, Mariaren Lagundia, Mogel-Isasi BHI, Arizmendi ikastola, EPA Arrasate, La Salle Azitain	20 irakasle www.eibarpat.net/etapa
Natur Zientzietako Curriculum (Tere Santos)	310	1	Almen, Elkar-Hezi, Elgoibar BHI, Kurtzebarri BHI, Zuazola-Larraña BHI, Elgoibar Ikastola, Arrasate BHI, Ipintza BHI, Mariaren Lagundia, Mogel-Isasi BHI, Arizmendi ikastola, EPA Arrasate, La Salle Azitain, Txantxiku ikastola, Itzio BHI, Aranzadi ikastola	23 irakasle www.eibarpat.net/etapa
Teknologiako Curriculum (Joseba Alkorta)	310	1	Elkar-Hezi, Elgoibar BHI, Zuazola-Larraña BHI, Elgoibar Ikastola, Arrasate BHI, Ipintza BHI, Mariaren Lagundia, Arizmendi ikastola, La Salle Azitain, Aranzadi ikastola	13 irakasle www.eibarpat.net/etapa
Konpetentziak eta DBHko curriculum berria (Benjamin Atutxa eta Lydia Fernández de Luco)	310	1	Arrasate BHI (klaustroa)	
Konpetentziak, Metodologia eta Ebaluazio Diagnostikoa (Lydia Fernández de Luco)	310	3	Kurtzebarri BHI (2 klaustroarekin eta 1 IKT dinamizatzailearekin eta orientatzailearekin)	Batean Jesus Mari Goñi egon zen.
Konpetentziak, Metodologia eta Ebaluazio Diagnostikoa (Lydia Fernández de Luco)	310	1	Ipintza BHI, Soraluze BHI, Aranzadi Ikastola, Mogel-Isasi BHI	Zuzendaritza taldearekin (zuzendaria, ikasketa burua, proiektuen koordinatzaileak edota orientatzailearekin)

Eibarko Berritzegunea

Izena (emailea)	Ildoa	Burutu diren saioak	Ikastetxeak (2 edo 3 orduko saio kopurua)	Oharra
Teknologiako Curriculuma eta gelaren espazioaren banaketa (Joseba Alkorta)	310	1	Kurtzebarri BHI (ikasketa burua eta Teknologiako irakasleak)	
Dibertsifikazio Curricularra (materialak eta irizpide metodologikoak)	350	1	Mendata BHI	Dibertsifikazio irakasleekin

4.- Metodologia

4.1.- Barne antolaketa

Bi batzordetan lan egin dut: Bizikidetzaren Batzordea eta hirugarren hiru hilabetearen sortutako etapako batzordea.

Bietan hasieratik gure barne antolaketan ordutegia eta egutegia ez finkatzeagatik sarritan zailtasunak izan ditut aurrez nik prestatutako lan plangintzarekin bateratzeko. Dena dela, bilera guztietan parte hartu dut. Bizikidetzaren batzordea Elkarbizitza mintegiaren agendaren arabera antolatu da.

Bestalde IKTKo aholkulariarekin sarritan bildu naiz webquest mintegiaren lan saioen gai zerrenda adosteko eta IKTKo baliabideak eta tresnak aztertzeko edo formazioa jasotzeko.

Gainera bilerak puntualak egin dira, hots, Hezkuntza Premia Bereziko aholkulariekin eta Hizkuntza Normalkuntza aholkulariarekin beharrezkoak izan direnean.

4.2.- Programa, zientifiko-teknologiko esparru eta arloko aholkulariekin bilerak

Aurten ez dira finkatu agenda bat bilerak egiteko eta nire lanean eragin txarra izan du. Funtsezkoa iruditzen zait, behintzat, Hezkuntza-Zientifiko arduradunarekin eta nire homologoekin urtean zehar bilerak egitea eta irailean egutegia finkatzea. Nire ustez, bilera horiek besteak beste informazioa eta materialak partekatzeko eta gure lana elikatzeko balioko dute.

2007 – 2008 Ikasturteko Memoria

■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■ ■

*Bigarren Hezkuntzako etapa aholkularia
Hizkuntza eta Giza-zientzietako eremua*

Roberto Orbea Garate

1.- Ikasturteko helburuak

07-08 ikasturtean bete nahi genituen helburuak kontuan izanda, lorpenak, zailtasunak eta hobetzeko proposamenak aztertuko ditut:

- Norberaren lana ahalik eta era egokienean gauzatzea.

Lortu da helburua, eta hainbat lankide eta Berritzeguneko beharrei ere erantzun egokia eman da.

Zerbait aipatzekotzan, denberoa premia izan da. Jaso izan ditugun eskabide, bilera, deialdi, ea gehienetan denbora izan da arazorik handiena.
- Gizarte eta Hizkuntzak eremuko Bigarren Hezkuntzako Aholkularitza honi dagozkion lanak aldarrikatu eta berreskuratzea, hainbat kasutan erreferenteen esku gelditu direnak.

Bultzatu da, baina ez beharrezkoa izango zen adina; ez bait dago oso garbi finkatua etapa-eremu aholkularia eta erreferentziatzko aholkulariaren arteko muga.
- Aholkularitza sistema bateratua bultzatzea, Berritzeguneko kide guztiek Berritzegunearen irudi berdina eskaini dezagun ikastetxeei.

Gai ez da ukitu.
- Ikastetxeetako eskaerak aztertzea eta erabakiak edo proposamenak egin.

Ikastetxeek aurkezturiko eskaerak aztertu egin dira eta era egokienean erabakiak eta proposamenak hartu dira.
- Aholkulari lanpostuaren kompetentziak aztertu nahi dira TKNIKA Institutuak sorturiko ARDATZ eredu jarraituz; bertatik ateratzeko, era simple baten, zeintzuk izango ziren aholkulari plaza honi legezkiokkeen kompetentziak.

Gaia ez da ukitu.
- Aurrekoaren ondorioz, formazioa indartu nahi da, bai Berritzegunean, bai kanpoan hitzaldi, kongresu edota ikastaroetan,... parte hartuz.

Formakuntza bultzatu da, eta hainbat eremuetan antolaturiko ikastaro zein ekintzetan parte hartu da.
- Baliogarriak diren IKT erabilerari buruzko esperientziak hedatzea Berritzeguneko eremuetan.

Berritzegunean sortu diren IKTren hainbat beharren hedakuntzan lagundu da.

Eibarko Berritzegunea

- Erreferentziazko ikastetxeekin harremana estutzea, bere lana era egokienean egin dezaten behar dituen aholkuak zein laguntzak eskeiniz,

Erreferentziazko ikastetxeekin harremana estutu da; nahiz eta, barne lagileriaren ondorioz, erreferentziazko ikastetxeak aldatu behar.

2.-Burutu diren jarduerak

2.1.- Mintegiak:

2.2.- Ikastaroak eta moduluak:

2.3.- Hitzaldiak, Materialen aurkezpenak eta bestiak:

Izena (emailea)	Ildoa	Orduak	Ikastetxeak	Partaideak	Balorazioa	Oharra
Curriculum Berriaren aurkezpena		2	Debabarreneko ikastetxeak	100		Erabilitako Berritzegunean eskuragarri dago
Curriculum Berriaren aurkezpena		2	Debagoieneko ikastetxeak	100		
BH Euskarako Curriculum Berriaren aurkezpena		4	Berritzeguneko ikastetxeak	20		
BH Gaztelaniako Curriculum Berriaren aurkezpena		4	Berritzeguneko ikastetxeak	20		
BH Gizarteko Berriaren aurkezpena		4	Berritzeguneko ikastetxeak	20		
BH Ingleseko Curriculum Berriaren aurkezpena		4	Berritzeguneko ikastetxeak	20		
Gipuzkoako Pedagogia Jardunaldiak			Miramar Jauregia			
PCPI Programaren aurkezpena			Aquariuma			
Ikasmina Adimen emozionala			Miramón Auditorioa			

2.4.- Emandako gai desberdinei buruzko aholkularitza:

Izena	Ildoa	Saioak	Ikastetxeak	Oharra
HTB programaren unitateen esperimintazioa (I)	31	10	Itzio BHI	
Tresneria informatikoa PT langilegoaren laguntzarako	42	1	Elgoibar BHI Ipintza BHI Arrasate BHI Mogel Isasi BHI	Lana egiteko irakasleei irudiak lantzeko oinarrizko tresna: IRFAN VIEW

Eibarko Berritzegunea

Tresneria informatikoa HLE langilegoaren laguntzarako	42	1	Aldatze Kurtzebarri BHI Mendata BHI Aranzadi San Viator Mariaren Lagundia Zuazola Larraña BHI Kurtzebarri LHI Arrasate LHI Arrasate BHI San Martin LHI Luzaro LHI Goizeko Izarra LHI San Andres LHI Mogel LHI Elgoibar LHI Luis Ezezia LHI San Jose LHI Errekalde LHI Zuazola Larraña BHI
Tresneria informatikoa HLE langilegoaren laguntzarako	42	1	

3.- Nire Formazioa

Izena (emailea)	Orduak	Tokia	Oharra
Diagnosi ebaluazioa (ISEI-IVEI)	5	EHU-FyCE	
Konpetentziak (J. Sarramona)	5	EHU-FyCE	
Irakatsi-ikasi prozesuak eraberritzen II Jardunaldia	5	Elgoibarko IMH	
Ikasmina. Adimen emozionala II	30	Itzio BHI	Orduz kanpo
PEL Jardunaldia	5	Abando Berritzegunea	
BH Konpetentziak	5	Gasteizko Berritzegunea	
Goieskola Jardunaldiak	4	Arrasate BHI	
Diagnosi ebaluazioa (ISEI-IVEI)	10	Orue Fundazioa	
Hizkuntza-komunikariozarako konpetentzia eta HTB (Felipe Zayas)	10	Donostiako Berritzegunea	
Getxolinguae Jardunaldiak	10	Getxoko Berritzegunea	

4.- Bilerak eta lan saioak

Izena (emailea)	Saio kopurua	Tokia	Oharra
HTB programa	6	Abandoko Berritzegune Lasarteko Berritzegunea Gasteizko Berritzegunea	
Eibarko Berritzeguneko Hizkuntza Batzordea	5	Eibarko Berritzegunea	
Eibarko Berritzeguneko etapa bilerak	5	Eibarko Berritzegunea	
Eibarko Berritzeguneko klustroak eta bilerak orokorrak	10	Eibarko Berritzegunea	
Kalitate Hezkuntza Ikastetxeekin	8	Mogel-Isasi BHI	
Kalitate Hezkuntzan Berretzeguneak	6	Durangoko Berritzegunea	
Gipuzkoako	10	Lurralde Ordezkaritza	

Eibarko Berritzegunea

Eskolaratze Batzordea			
Xera Batzordea	1	Lurralde Ordezkaritza	

5.- Erreferente lana

Izena	Aholkularitza	Ekintzak bereziak
Iztio BHI	Ikasturtean harremana zuzena eta jarraia izan da	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxeko proiektuen jarraipena (8 saio)• Ikastetxeko proiektuaren aurkezpenaren prestaketa (10 saio)• Sorturiko zalantzak argitu eta aholkatu (5 Saio)• Datorren ikasturterako proposamenak (saio 1)
La Salle - Azitain	Ikasturtean harremana noiz behinkakoa izan da.	<ul style="list-style-type: none">• Ikasturte hasierako aurkezpena (Saio 1)• Sorturiko zalantzak argitu eta aholkatu (Saio 1)• Datorren ikasturterako proposamenak (Saio 1)
La Salle - Isasi	Ikasturtean harremana noiz behinkakoa izan da.	<ul style="list-style-type: none">• Ikasturte hasierako aurkezpena (Saio 1)• Sorturiko zalantzak argitu eta aholkatu (3 Saio)• Datorren ikasturterako proposamenak (Saio 1)
Nuestra Sra de la Providencia HLBHIP	Ikasturtean harremana zuzena eta noiz behinkakoa izan da	<ul style="list-style-type: none">• Ikasturte hasierako aurkezpena (Saio 1)• Sorturiko zalantzak argitu eta aholkatu (Saio 1)• Datorren ikasturterako proposamenak (Saio 1)
Mutriku BHI	Ikasturtean harremana zuzena jarraia izan da.	<ul style="list-style-type: none">• Ikasturte hasierako aurkezpena (Saio 1)• Ikastetxeko proiektuen jarraipena (3 saio)• Datorren ikasturterako proposamenak (Saio 1)

6.- BH Hizkuntza eta Gizarte aholkulari lana (Erreferentziako ikastetxetik kanpo)

7.- Ebaluazioa

6.1. Lorpenak

Poliki poliki lanpostuaz jabetzen ari naiz eta gero eta zailtasun gutxiagorekin aurkitzen naiz.

Hainbat ikastetxeekin harremanak sendotzen doaz.

Aureikusiriko gauza gehienak lortu ditut eta hainbat bapateko erronkei era egokian erantzun diet:

- Gipuzkoako Jardunaldietan sorturiko beharrei (IKTren baxa) erantzun egokia ematea.
- PT eta HLE formakuntza.
- Konpetetziei buruzko hitzaldietan sorturiko beharrak.
- ETORKIT materialaren sorrera eta aurkezpena.
- Itzio BHIren ikaslee berezien beharrak
- Aurre ikusi ditudan hainbat formakuntza premia.

Erreferente naizen garen ikastetxe guztiekin eskuhartze plana egin dugu eta Berrikuntza zein Prestakuntza proiektuen jarraipena eta koordinazioa gauzatu.

6.2. Zailtasunak

Nire eremuko gaien kopuru zabalak askotan era ezberdineko gai edo lan gehiegi jartzen ditu nire gainean, denak berehalako erantzuna behar dutenak.

6.3. Hobekuntzak

- Aholkularitza prozedura era zehatz baten finkatu, denok modu berean joak dezagun.
- Ikastaroetan parte hartzeko araudia finkatzea.
- Tresneria egokitzea eta parekatzea aholkulari guztien artean.
- Lana RPTaren arabera berrantolatzea.
- Aholkularien eremuekin batera bakoitzaren ahalmenak eta zaletasunak kontutan hartzea, barneko antolaketa gauzatzerakoan.

2007 – 2008 Ikasturteko Memoria

*Haur eta Lehen Hezkuntza
etapetako aholkulariak*

**Koro Lete
Maite Pérez
Ana Rosa Maiztegi
Roberto Salazar
Ana Cabezas**

1.- Sarrera

Ikasturte honetan esan dezakegu, sakontasun maila ezberdinetan, urteko lan-planean markatutako helburuak bete ditugula.

Helburu hauen artean hamar dira bereziki aipagarri:

- Erreferente garen ikastetxeekin harremana estutzen joan, beraien eguneroko lanean lagunduz, eta gelako jardueretan hobekuntza pedagogikoak bultzatuz.
- HH eta LMH etapetan sortzen diren aholkularitza eskariei erantzuna eman.
- Proiektuen metodologia bultzatu eta lan kooperatiboaren ezaugarriak zabaldu.
- Hizkuntza Trataera Bateratuaren metodologiaren irizpideak zabaldu, hots, hizkuntzak ikuspegi komunikatibo batetik abiatuz irakasteak duen garrantzia, e.a.
- Kulturartekotasuna, landu: Harrera plana, gatazkak, besteen kultura ezaugarriak, integrazioa, 2.hizkuntzaren didaktika, ...
- Bizikidetzaren gaia ikastetxeetan jorratu, modulua eta aholkularitzaren bitartez. Honez gain, Urtebeteko Elkarbizitza Plana eta Elkarbizitza Behatokia garatzeko mintegia sortu.
- Elkarbizitza proiektuei buruzko aholkularitza eta jarraipena egin: emozioen hezkuntza, giza trebetasunak, diziplina positiboa, tratu txarrak,...
- Curriculum berria eta konpetentziei buruzko formazio saioak eman.
- Hezkuntza Eleanitza bultzatzeko (INEBI- BHINEBI), zabaltzeko eta curriculum berriaren ikuspuntutik azterketa sakon eta baliagarri bat egiteko mintegiak osatu, jarraipena egin eta ebaluatu.
- Egoera berriari aurre egiteko Batzordeko kideen arteko autoformazioa bultzatzea eta bestelako formazio ekintzak proposatzea.

1.1.- Lorpenak:

Lehen Hezkuntzako curriculum berria ezagutarazteko saioak ezberdinak eman ditugu.

Proiektuen metodologiaren ezaugarriak ezagutarazi eta ikastetxeek egindako proiektuak aztertu egin ditugu.

Hizkuntza Trataera Bateratua lantzea eskatu duten ikastetxeei heuren beharren arabera aholkularitza eman diegu.

Kulturartekotasunari dagokionez, gaiaren inguruan Berritzegunean sortutako baliabideak banatu eta ikastetxeetan ezagutarazi ditugu.

Bizikidetzaren modulua ikastetxe batean landu dugu: J.A. Mogel LHI. Era berean, Bizikidetzaren inguruan hiru proiektu global kudeatu ditugu **“Eskola elkarbizitarako espazioa”** (Elgoibar LHI), **“Taldean eta taldearekin hazi: identitatearen garapena eskolan. Adibide zehatzak”** (Antzuola LHI) eta **“Bizikidetzaren lantzen proiektuen metodologiarekin batera”** (San Andres LHI). Gai honekin amaitzeko B motako prestakuntza eskuhartzea burutu dugu Oinatiko Errekalde LHI ikastetxean.

XXXXXXXXXX

1.2.- Zailtasunak:

Atal honetan aipatu behar dugu, etapako aholkulariok dugun zailtasunik handiena dela jorratu behar ditugun gai anitzek sortzen diguten dispersioa. Honi gehitu behar dizkiogu gauzatu behar izan ditugun beste hainbat lan ere:

- Ikasturte honetan LOEk araututako Ebaluazio Diagnostikoa diseinatu.
- Haur Hezkuntzako curriculum berria sortu.
- Konpetentzien garapenerako aholkularientzako baliabideak sortu.

Bestalde, beste Berritzegunetako koordinazio egokia garatzeko faltan botatzen dugu.

1.3.- Hobetzeko proposamenak:

Hezkuntza Sailak bultzatzen dituen ildo nagusietan lehentasunak ezarri eskuhartzea eraginkorragoa izan dadin.

Ikastetxeetako eskuhartzeak gidatuko dituen baliabide zein tresna multzoa sortu ildo nagusiek definitzen dituzten gaien arabera antolatuta. Berritzeguneez arteko zein Berritzegune barruko etapen arteko koordinazioa bultzatu.

2.- Ikasturteko helburuak

2.1.- Erreferente lana

2.1.1.- Lorpenak:

Erreferente garen ikastetxe guztiekin eskuhartze plana egin dugu Berrikuntza zein Prestakuntza proiektuen jarraipena eta koordinazioa gauzatu.

Ikastetxeetatik jaso ditugun eskaerei erantzuna ematen saiatu gara. Ondorengo zerrendan aipagarrienak zehaztuko ditugu:

ARRASATE LHI:

- HH eta LHan proiektuen metodologia bultzatu.
- Bizikidetza eta kulturartekotasunaren inguruan izandako hainbat eskariri erantzuna eman.
- Lehen Hezkuntzako curriculum berria ezagutarazteko saioa.

KURTZEBARRI LHI:

- Emozioen inguruko proiektua eta Ahozketasunaren inguruko proiektuaren jarraipena eta balorazioa.

LUIS EZEIZA LHI:

- HH eta LHko 1. zikloan proiektuen metodologia bultzatu.
- LHan proiektu telematikoen jarraipena.

ERREKALDE LHI:

- IKT proiektuaren jarraipena.
- B motako prestakuntza eskuhartzea.

ELGOIBAR LHI:

- HH eta LHan proiektuen metodologia bultzatu.
- Bizikidetza Proiektu globalaren aholkularitza eta jarraipena.
- Lehen Hezkuntzako curriculum berria ezagutarazteko saioa.

SAN MARTIN AGIRRE LHI:

- HHan proiektuen metodologia bultzatu.
- LHan HTB eta hizkuntzetako curriculumaren inguruko aholkularitza eta jarraipena.
- HH eta LH etapen arteko koordinazio saioak.
- Lehen Hezkuntzako curriculum berria ezagutarazteko saioa.

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA:

- LHn HTB proiektuaren aholkularitza, jarraipena eta balorazioa.
- HHn eta LHan proiektuen metodologia bultzatu.
- HHn txokoen antolaketari buruzko aholkularitza.

SAN ANDRES LHI:

- HH eta LHan proiektuen metodologia bultzatu.
- Bizikidetza Proiektu globalaren aholkularitza eta jarraipena.

URKIZU LHI:

- HHan proiektu telematikoen jarraipena.
- PROA eta Xera inguruko aholkularitza.

ANTZUOLA LHI:

- Bizikidetza Proiektu globalaren aholkularitza eta jarraipena.

MOGEL:

- A modalitateko Bizikidetza modulua.

EL PILAR:

- Gutxieneko koordinazio saioak.

ARRATEKO ANDRA MARI

- **Ikastetxeko curriculumaz aztertu da kompetentzien ikuspuntutik. Datorren ikasturtean jarraituko dugu.**

AMAÑA

- **IKAT proiektua izaterakoan, batez ere programa horren aholkularia harreman izan dute.**

LUZARO

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira. Curriculum berria eta kompetentzien garapenei buruz klaustro osoarekin saio pare bat landu dira.**

ELGETA LH

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira. Curriculum berria eta kompetentzien garapenei buruz klaustro osoarekin saio pare bat landu dira.**

PLAENTXI HI

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira. Horrez gain beraien proiektu nagusia Bizikidetzan inguruan denez orain arteko Bizikidetzan aholkulari arduradunarekin harreman gehiago izan dute.**

MENDATA

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira.**

TXANTXIKU

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira.**

ARIZMENDI

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira.**

LA SALLE

- **Bilera gehienak informatiboak izan dira.**

2.1.2.- Zailtasunak:

Eskakizunen esparru zabalegia.

2.1.3.- Hobetzeko proposamenak:

Berritzegune barneko zein kanpoko koordinazioak hobetu.

3.- Jarduerak

Atal honetan, mintegi, ikastaro, hitzaldi, materialen aurkezpen eta gai desberdinei buruzko aholkularitzaz memoria kuantitatiboa egingo dugu.

3.1.- Mintegiak:

Izena	Ildoa	Saioak	Ikastetxeak	Partaideak	Balorazioa	Material Ekoizpena
Proiektuen metodologia HH eta LHko 1. zikloa	310	9	Elgoibar LHI, San Andres LHI, San Martin LHI, M ^a ren Lagundia, Arrasate LHI, Luis Ezeiza LHI, Errekalde LHI.	11	9	Ikastetxe bakoitzean espazioaren antolaketari buruzko txostena eta proiektu anitzak.
Proiektuen metodologia LHko 2. eta 3. zikloetan.	310	9	Elgoibar LHI, San Andres LHI, Luis Ezeiza LHI, Arrasate LHI.	6	9	Proiektu anitzak
INEBI eta Curriculum berria		15	13	13	7'5	Curriculum, Kompetentziak eta INEBI arteko loturak taulen bidez islatu dira
BHINEBI eta Curriculum berria		15	10	12	7	Curriculum, Kompetentziak eta BHINEBI arteko loturak taulen bidez islatu dira
BHINEBI ETA Curriculum berria-2.zikloa		15	5	5	8	

3.2.- A motako prestakuntza jarduerak

Bizikidetza modulua	221	5	Mogel LHI	45	7	
---------------------	-----	---	-----------	----	---	--

3.3.- Ikastaroak:

Izena	Ildoa	Orduak	Emalea	Partaideak	Balorazioa	Oharrak
Proiektuen metodologia HH eta LHn	310	7	Carlos Gallego	20	8	

3.4.- Gai desberdinei buruzko aholkularitza:

Izena	Ildoa	Saioak	Ikastetxeak	Oharra
Proiektu Telematikoak	320	8	Luis Ezeiza LHI, Urkizu LHI, Arrasate LHI, San Martin Agirre, J.A. Mogel	
HTB LMH	341	30	M ^a ren Lagundia ikastola; San Martin LHI, Luis Ezeiza LHI	
Bizikidetza		20	San Andres LHI, Elgoibarko LHI, Antzuola LHI. J.A. Mogel, Errekalde LHI, Urkizu LHI.	
Curriculum berria eta konpetentziak		7	Arrateko Andra Mari, Elgeta eta Luzaro	

4.- Metodologia

4.1.- Barne antolaketa

Hiru batzordetan egiten dugu lan: Hizkuntza batzordea (Koro eta Ana) eta Bizikidetzaren batzordea (Maite ,Koro eta Roberto),Etapa Batzordea (Ana,Roberto,...)

Hauetan lan egiterakoan somatu ditugun zailtasunak ordutegi eta agendarekin lotuak daude.

4.2.- Programa bilerak

Aurten honako programa bileretan parte hartu dugu:

- HTB programa
- Proiektu Telematikoak
- Kulturartekotasuna

4.3.- Etapa bilerak

Aurten ez da etapa bilera izan .

-